

2022ko Batzar Nagusia

Gai-zerrendako puntuak: 5

Som Energiaren kontu-hartzailetzaren txostena

AURKIBIDEA

Testuingurua eta laburpen exekutiboa	2
2021eko urteko kontuak onartzeko babesa	2
Ekonomia eta Finantza taldearekiko eta Artezkaritza Kontseiluarekiko harremana	3
Balantzea	4
Emitza-kontua	8
Kooperatibaren epe luzerako finantza-egonkortasuna	12
2020ko aurrekontua	13

Testuingurua eta laburpen exekutiboa

2021 urte bereziki zaila eta gorabeheratsua izan da sektore energetikoan. Pandemiaren ondoriozko arazoei hauek gehitu zaizkie:

- Handizkako merkatuan, energiaren **prezioek igoera** itzela eta orain arte ezezaguna izan dute. Igoera horren ondorioz, funts gehiago behar izan dira energiaren fakturak ordaintzeko (prezio altuek aurreratzen dugun eta bezeroen faktura kobratzen dugun arte berreskuratzen ez dugun diru-bolumena areagotu dute). Horrez gain, OMIE merkatuan operatu ahal izateko eman beharreko bermeak handitu dira.
- **Tarifa-sistemaren** aldaketek atzerapenak eragin zituzten fakturazioan (banatzaileen irakurketarik ezagatik).
- Halaber, Estatuko Gobernuak **aldaketa berriak** bultzatu ditu, prezioen igoerak azken kontsumitzailearengan dituen ondorioak arintze aldera. Aurrekoaren ondorioz, kooperatibak BEZaren % 21aren eta % 10aren arteko diferentziala aurreratu du (Ogasunak hilabete batzuk hartzen ditu itzulkin hori egiteko).

Nabarmendu behar dugu kooperatibaren **kaudimena** ez dela arriskuan egon; izan ere, kostu handiagoa (hornikuntza) aurretiaz ezagutzen da eta, horrela, tarifak hortik abiatuta ezartzen dira. Era berean, berankortasuna ez da handitu.

Funtsean, jasandako krisia **likidezia**-krisia izan da. Hala ere, behar bezala likidatu zen, kapital sozial boluntarioa eta banku-zorpetzea handituz.

Kontratuen eta bezeroen kopurua hazten denean eta, horrenbestez, fakturatutako kWh-ak hazten direnean, beti behar dira finantza-baliabide gehiago merkatu-arriskuak estaltzeko (OMIE bermeak eta gerokoen bermeak) eta lan-kapital premiak asetzeko (ordainketen eta kobrantzen arteko desfasea). Diru-zaintza arriskuan jarri gabe hazteko, sorkuntza handiagoaren, hirugarrenekin alde biko kontratu gehiago egitearen (PPA) eta merkatu-ordezkaritza gehiagoren alde egiten dugu.

Aipatutako tentsio guztiak gorabehera, 2021eko emaitza, zergak baino lehen, positiboa izan da, zehazki, 1.604.605 eurokoa, 2020koa baino % 98,5 handiagoa.

2021eko urteko kontuak onartzeko babesa

Som Energiaren indarreko Estatutuen 53. artikulua batzarrak kontu-hartzaile gisa hautatutako pertsonen eginkizunak definitzen ditu. Dokumentu horrekin eta legeria aplikagarrian jasotako erantzukizunekin bat eginez, igortzen dugu gure txostena honen

inguruan: enpresaren kudeaketaren azalpen-memoria; balantzea; emaitzen kontua eta 2022ko Batzar Nagusian nahitaez aurkeztuko diren gainerako kontabilitate-dokumentuak.

Gure ustez, txosten honekin, amaitzen da ekonomia-, finantza-, ondare- eta kontabilitate-kudeaketa ezagutzeko lana, kooperatibaren ikuspegirik ahalik eta zehatzena eman diguna. Ekonomia eta Finantza taldearekiko lankidetzaz erraza izan da. Eskuragarri egon denean, eskatutako informazioa eman digute, bai enpresa nagusiari dagokionez, bai partaidetzapeko enpresei dagokienez. Erantzun digute eta planteatutako kontuak azaldu dizkigute. Beharrezko bilerak egin ditugu, informazioa zehatz-mehatz ulertzeko eta osatzeko; halaber, aukera izan dugu gure iritzia askatasunez eta independentziaz adierazteko.

Aztertu dugu emandako informazioa. Gure ezagutzan eta irizpidean oinarrituta, hauxe adierazten dugu: *Som Energia S.C.C.L.-ren eta Som Energiak posizio menderatzailea duen partaidetzapeko sozietateen 2021eko ekitaldiko galera eta irabazien kontuak eta egoera-balantzeak eta Grup Som Energia Taldearen bateratuek modu egoki eta fidelean islatzen dituzte bere finantza- eta ondare-egoerak, baita egindako operazioen emaitza ere. Som Energiaren eta taldearen memoriak urteko kontuen parte dira eta beharrezko informazio nahikoa ematen dute horiek ulertzeko.*

Horrenbestez, **proposatzen dugu 2022ko Ohiko Batzar Nagusiari aurkeztutako 2021eko ekitaldiko urteko kontuak onestea.**

Ekitaldi honetan eta aurrekoetan egindako berrikuspenen ondorioz, ekonomia-, finantza- eta ondare-kudeaketarekin lotutako zenbait gairen inguruko iritzia ematen dugu. Gure helburua da, batetik, kanpo-auditoretza osatzea eta, bestetik, ekonomia-finantza taldeak egindako azalpen-txostena osatzea.

Ekonomia eta Finantza taldearekiko eta Artezkaritza Kontseiluarekiko harremana

Som Energiak bere egitura guztietan sufritu du, baina aurtengo proba gogorra gainditu du. Artezkaritza Kontseiluari eta talde teknikoari eskertzen diegu bere esfortzua eta zoriontzen ditugu, bere kudeaketaren emaitza positiboa izan delako. Gure kasuan, bereziki zoriondu nahi dugu Ekonomia eta Finantza taldea, baja hartu duen pertsona eta aurten sartu diren pertsona guztiak barne hartuta.

Horrez gain, eskerrak eman nahi ditugu Artezkaritza Kontseiluak gonbidapen ugari helarazi dizkigulako bere bileretara joateko eta horietan parte hartzeko eta, horrez gain, kontseiluko kide bat izendatu duelako gure hizketakidea izateko. Espero dugu harreman honekin jarraitzea eta etorkizunean are gehiago estutzea.

laz, Ekonomia eta Finantza taldeak egindako *Kontuen txosten argitzailearen* agerpena ospatu genuen. Asko pozten gara horren jarraipena ikusteaz, taldean jasandako lan-gainkarga eta aldaketak gorabehera.

Aurrekoarekin batera, positibotzat jotzen dugu Ekonomia eta Finantza taldean kide gehiago sartzea, iazko txostenean eskatu genuen bezala. Hala eta guztiz ere, kudeaketa-tresnei dagokienez (TI), oraindik ere, urritasunak detektatzen ditugu; tresna horiek beharrezkoak dira operatiboaren fidagarritasunerako eta taldearen lan-ongizaterako. Horien artean, berriro ere nabarmendu nahi dugu kontabilitate analitiko osorik ez dagoela. Tresna oso baliagarria da sozietate-kudeaketaren kontrola hobetze aldera.

Balantzea

Balantzearen alderdi nabarmenak baino ez ditugu laburbiltzen eta, jarraian, horiek azaltzen ditugu.¹

AKTIBOA. Zenbatekoa milioi eurotan (milioi euro)	2021	2020	Desberdintasuna
A) AKTIBO EZ-KORRONTEA	14,95	13,29	1,66
I. Ibilgetu ukiezina	0,14	0,02	
II. Ibilgetu materiala (lursailak eta instalazio teknikoak)	0,80	0,10	
IV. Epe luzerako inbertsioak taldeko enpresetan eta enpresa elkartuetan.	13,64	11,61	
1. Ondare-tresnak (partaidetzapeko sozietateen kapitala)	1,30	1,14	
2. Enpresei emandako kredituak (partaidetzapeko sozietateei)	12,34	10,47	
V. Epe luzerako finantza-inbertsioak	0,37	1,54	

¹ Onartzeko aurkezten diren 2021eko urteko kontuek balantze osoa hartzen dute barne. Informazio xeheagoa emateko, Ekonomia eta Finantza taldeak egindako *Som Energiaren 2021eko urteko kontuen txosten argitzaile*ra jotzen dugu.

1. Ondare-tresnak	0,37	0,37	
5. Bestelako finantza-aktiboak	0,00	1,17	
B) AKTIBO KORRONTEA	39,10	20,78	18,31
III. Merkataritza-zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk	16,00	4,24	
1. Salmentengatiko eta zerbitzuak emateagatiko bezeroak	7,93	4,16	
5. Zerga korrontearengatiko aktiboak	0,08	0,08	
6. Administrazio publikoekiko bestelako kredituak	7,98	0,00	
IV. Epe laburrerako inbertsioak taldeko enpresetan eta enpresa elkartuetan	0,84	0,54	
V. Epe laburrerako finantza-inbertsioak	16,36	1,64	
1. Ondare-tresnak	0,17	0,17	
2. Enpresei emandako kredituak	0,11	0,00	
4. Deribatuak	8,61	1,47	
5. Bestelako finantza-aktiboak	7,47	0,00	
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	5,90	14,36	
AKTIBOA GUZTIRA (A + B)	54,05	34,08	19,97

PASIBOA. Zenbatekoa milioi eurotan (milioi euro)	2021	2020	Desberdintasuna
A) ONDARE GARBIA	33,54	20,85	12,69
I. Kapitala	28,79	17,40	
III. Erreserbak.	3,45	2,77	
VII. Ekitaldiko emaitza	1,29	0,68	
B) PASIBO EZ-KORRONTEA	8,52	6,26	2,26
I. Epe luzerako hornidurak	0,12	0,09	
II. Epe luzerako zorrak (kreditu-entitateekin eta bestelako pasiboekin)	2,07	0,30	
III. Taldeko enpresekiko eta enpresa elkartuekiko epe luzerako zorrak (bazkideekin)	6,33	5,85	
C) PASIBO KORRONTEA	11,99	6,96	5,03
II. Epe laburrerako hornidurak	0,09	0,10	
III. Epe laburrerako zorrak (kreditu-entitateekin eta bestelako pasiboekin)	5,15	0,02	
V. Merkataritza-hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	6,75	6,83	
1. Hornitzaileak	3,51	2,83	
3. Hainbat hartzekodun	1,83	1,17	
5. Zerga korrontearengatiko pasiboak	0,21	0,00	

6. Administrazio Publikoekiko bestelako zorrak

1,11

2,83

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A + B + C)	54,05	34,08	19,97
--	--------------	--------------	--------------

2021ean zehar, operatiboa aldatu da. Aldaketa horiek 19,97 milioi euroko gehikuntza sortu dute 2021-12-31ko balantzearen (54,05 M€) eta 2020-12-31ko balantzearen artean (34,08 M€). Hauek dira nabarmenenak:

- a) **Bermeak handitzea OMIErentzat.** Kooperatibak Batasun Elektro Industrialak ordeztu egin du eguneroko OMIE merkatuan energia hornitzeko zerbitzuetan. Hortaz, 1,1 M€ berreskuratu ziren Batasun Elektro Industrialeko gordailuan. Alderantziz, OMIEri 7,47 milioi euroko bermeak eman zaizkio. Zenbateko hori energiaren prezio altuaren ondorioa da: zenbat eta prezio handiagoa, orduan eta berme gehiago gordailutu behar dira.
- b) **BEZaren aurrerakinak.** Energia-erosketetan jasandako BEZa % 21eko kargarekin mantendu da, baina bezeroei egindako salmenta gehienetan igorritako BEZa % 10era murriztu da. Horrenbestez, BEZaren likidazioak "ordaindu" beharrean, "itzuli" egin behar izan dira. 2021-12-31n, Ogasunak 7,98 M€ zor zizkion kooperatibari.
- c) **Etorkizunerako energia-erosketak** Urtearen amaieran, kontratuak kooperatibaren aldeko balorazioak zituzten (etorkizunerako ziurtatutako energiaren prezioa urte amaieran indarrean zegoen energiaren prezioa baino baxuagoa zen). Horren ondorioz, partida hau 7,14 M€ igo zen, 2020ko amaierarekin alderatuta.
- d) **Maileguak partaidetzapeko sozietateei** 2,47 milioi eurotan, sorkuntza-planta berriak eraikitzeak: PF Llanillos, Pedro Martínez (Granada); PF La Serra, Anglesola (Lleida) eta PF Asomada Solar, Cartagena (Murtzia).
- e) **Bezeroen saldoa.** Igotzen da 3,77 milioi euro. 2021eko amaieran, 2022ko hasieran kobratu ziren fakturak igorri ziren. Energiaren prezioaren igoeragatik, faktura hauen zenbatekoa, guztira, 2020ko amaieran igorritako fakturen zenbatekoa baino askoz handiagoa da.
- f) **Lursailaren erosketa.** Lursaila Gironako udalerrian erosi zen 2021eko hasieran, 0,71 M€-tan, kooperatibaren etorkizuneko bulegoak bertan kokatzeko.
- g) **Lan-kapitala.** Gehienbat, kooperatibak aurreratzen duen zenbatekoa da, energia astero ordaintzen duenetik bere bezeroei hilero kobratzen dien arte. 2021ean, hazi ziren lan-kapitaleko premiak, kudeatutako kontratuak (+% 11,7) eta fakturatutako kWh-ak hazi direlako (+% 15,3).

Baliabide-aplikazio horien finantziazioa bost tresna desberdinen bidez egin da:

- a) **Diru-zaintza** 8,46 M€ murriztu da 2020-12-31 eta 2021-12-31 bitartean.
- b) **Bazkideen ekarpenak:**
 - b1) **Kapital sozial boluntariora** (jaulkipena urrian ireki zen, +11,6 M€ 2021-12-31n). Baliabide-premiak murrizten direnean, soberakina sorkuntzarako edo kostua duen zorra kitatzeko erabili beharko litzateke, egokia denean.
 - b2) Bazkide berrien **derrigorrezko** kapital sozialera (+0,79 M€).
- c) **Erreserben hazkundea**, 2020ko emaitza positiboei esker (+0,68 M€).
- d) **Banku-kreditua.** Lehenengo aldiz, balantze kooperatiboak banka etiko, publiko eta komertzialeko finantza-entitateekiko zorrak hartzen ditu barne. Energiaren prezioen igoera azkarrak behartu du finantziazio-iturri hau gehitzera. 2021-12-31n, banku-zorraren saldo bizia 6,33 M€-koa zen.

Zoriondu nahi dugu Ekonomia eta Finantza taldea, diru-zaintzaren erabilgarritasuna handitzeko egindako kudeaketengatik, ekarpen boluntarioak gorabehera, Kreditu-lerroen eta abalen eskuragarritasunak eta *confirmingen* kontratazioak (erabiltzen ez bada, ez dago kosterik) likidezia handitzen dute eta operazioei segurtasuna ematen diete.
- e) **Tarifen igoera.** 2021ean, tarifak 4 aldiz aldatu behar izan dira gorantz, energiaren prezioen igoera aplikatzeko.

Emaitza-kontua

Aurretik, bereziki interesgarriak diren bi datu islatzen ditugu:

<i>Kontzeptua</i>	<i>2021</i>	<i>2020</i>	<i>Aldakuntza %</i>
Fakturatutako kWh	433.025.684	375.498.575	% 15,3
Urte amaierako kontratuak	133.277	119.335	% 11,7

Emitza-kontuaren alderdi nabarmenak baino ez ditugu laburbiltzen eta, jarraian, horiek azaltzen ditugu.²

Zenbatekoak milioi eurotan (milioi euro)	2021	2020	%
A) ERAGIKETA JARRAITUAK			
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	79,21	72,06	% 9,9
3. Enpresak bere aktiborako egindako lanak	0,14	0,00	
4. Hornikuntzak	-73,92	-65,17	% 13,4
A.0) KOMERTZIALIZAZIO-MARJINA (1+4)	5,29	6,89	- % 23,3
5. Bestelako ustiakuntzako diru-sarrerak (diru-laguntzak eta dohaintza boluntarioa)	1,05	0,79	% 32,6
6. Langileria-gastuak	-3,73	-3,23	% 15,4
7. Bestelako ustiakuntza-gastuak	-0,86	-3,50	- % 75,3
a) Kanpoko zerbitzuak	-1,52	-1,27	
b) Zergak	0,80	-2,03	
C) Galerak, narriadura eta horniduren aldakuntza	-0,15	-0,20	
8. Ibilgetuaren amortizazioa	-0,06	-0,07	- % 10,6
12. Hezkuntza, Prestakuntza eta Sustapen Funtsa	-0,11	-0,06	% 91,7
13. Bestelako emaitzak	-0,01	-0,01	- % 34,4

² Ikusi 1. oharra. Irizpide bera aplikatzen diogu emaitza-kontuari.

A.1) USTIAPEN- EMAITZA (1+3+4+5+6+7+8+9+12+13)	1,71	0,81	% 110,1
14. Diru-sarrera finantzarioak	0,19	0,23	- % 17,3
15. Finantza-gastuak	-0,20	-0,23	- % 14,2
18. Finantza-tresnak besterentzearen ondoriozko narriadura eta emaitza	-0,09	0,00	
A.2) FINANTZA-EMAITZA (14+15+18)	-0,10	-0,00	- % 106,4
A.3) ZERGA AURRETIKO EMAITZA	1,60	0,81	% 98,5
19. Mozkinen gaineko zergak	-0,31	-0,13	% 144,7
A.4) ERAGIKETA JARRAITUEN EMAITZA (A.3+19)	1,29	0,68	% 89,8
A.5) EKITALDIKO EMAITZA	1,29	0,68	

Zergak baino lehen, 2021eko emaitza 1,60 milioi eurokoa izan da, aurreko urtekoa baino 0,79 milioi euro handiagoa (+% 98,5). Hauek izan dira aldakuntzan eragin duten partida nagusiak:

a) Hornikuntza-kostua

Som Energiak jarraitu du gerokoen merkatuan parte hartzen, aurretiaz jakiteko zein preziotan erosiko den energia. Gerokoen merkatuaren bidez, hornikuntza-premien % 80 inguru estaltzen da. Gainerakorako, OMIE eguneroko merkatura jotzen du.

Gerokoen bidez ezagututako erosketa-prezioarekin, kooperatibak tarifak ezartzen ditu. Horrela, arriskua, komertzializazio-marjinari dagokionez, estali gabeko partera mugatzen da.

Gerokoen estaldurei esker, lortu da 2021eko hornikuntza-kostuaren prezioen gehikuntza merkatu-prezioek izandako gehikuntza baino askoz txikiagoa izatea. Horrela, fakturatutako kWh-en kopurua % 15,3 hazi da, baina hornikuntza-kostua gutxiago hazi da, zehazki, % 13,4. Hain zuzen ere, 2020ko 65,17 milioi euroetatik 2021eko 73,92 milioi euroetara pasa da (+8,75 M€).

Hornikuntzaren eremuan, 2021eko nobedade nagusia da Som Energiak PPA kontratuak (*power purchase agreement* edo elektrizitatea erosteko akordioak) ezarri dituela partaidetzapeko sorkuntza-sozietateekin. Kontratu horiek segurtasuna ematen diete bi aldeei. Batetik, sozietate hauek ziurtatzen dute bermatutako prezioa kobratuko dutela sortutako energiaren truke, merkatuaren gorabeheren menpe egon beharrik gabe. Zenbatesten da, PPA kontratuen aplikazioaren ondorioz lortutako diru-sarrerekin, partaidetzapeko sozietateek emaitza positiboak sortu ahalko dituztela eta beharrezko finantza-baliabideak lortuko dituztela kooperatibak emandako maileguak itzultzeko. Bestetik, kontratu hauekin, Som Energiak hornikuntza-prezio bat ziurtatzen du partaidetzapeko sozietateek sortutako energia osoaren truke. Horrela, saihesten da parte honen geroko en estaldurak egitea. 2021ean, PPA kontratuak 1,12 M€ aurreztu dizkiote hornikuntza-kostuan.

Azkenik, hirugarren abantaila bat izango litzateke bankuekin kooperatibak partaidetzapeko e egindako maileguak subrogatzeko aukera egongo litzatekeela. Horrekin, Som Energiak likidezia gehiago lor lezake. Horrez gain, aukera ematen da PPA akordio berriak lortzeko beste sortzaile batzuekin.

b) Diru-sarrerak

Salmentekin eta zerbitzuak ematearekin lotutako diru-sarrerak % 9,9 igo dira; horrela, 2020an 72,06 M€ izatetik 2021ean 79,21 M€ izatera pasa dira (+7,15 M€). Estatuko gobernua neurriak ezarri zituen faktura elektrikoaren prezioa murrizteko (tarifetan bidesariak murriztu ziren eta fakturan kontzeptu batzuk aldi baterako ezeztatu ziren) eta neurriak fakturatutako azken zenbatekoa murriztu zuten. Neurri horiek (2020an ez zeudenak) eragina daukate diru-sarreren 2021/2020 aldakuntzan.

Urteko lehenbiziko hiru hilabeteetan, tarifak izoztuta egon ziren, Filomena denboralearen ondorioa gorabehera. Horrenbestez, eguneroko OMIE merkatuan erositako energiaren batez besteko kostuaren gehikuntza ez zen fakturazioan islatu.

c) Komertzializazio-marjina

Diru-sarreren eta hornikuntza-kostuaren aldakuntzaren arabera, 2021eko komertzializazio-marjina 5,29 M€-koa da. 2020arekin alderatuta, 1,60 M€ murrizten da (-% 23,3). Murrizketa hori mantendu da “Zergen” partidan gastua txikiagoa izan delako, jarraian azaltzen dugun bezala.

d) Ustiakuntza-gastuak

Ustiakuntza-gastuak 3,58 M€-koak izan dira, 2020ko 6,08 M€-ekin alderatuta. Aldakuntza nagusia araudi-aldaketa baten ondorioa da, ekonomia-jardueren gaineko zergaren ordainketaren galdagarritasunari dagokionez. Zehazki, horrek aurreko urteetan egindako hornidura osoa (1,49M€) askatzen du, kontrapartida ustiakuntza-kontuko zergen kontuan

izanik. Eraitza da “ez-ohiko diru-sarrera” lortu dela, 2021eko hasieran jada ezaguna zena. Uste dugu horrek ahalbidetu digula urte bereko tarifa-igoerak moderatzea.

Kooperatibaren epe luzerako finantza-egonkortasuna

Kooperatibak energiaren prezioekin lotutako ziurgabetasunaren aurrean duen finantza-sendotasuna ez da egoeraren arabera kontu bat, baizik eta epe luzerako kontua.³ Efektu horien aurrean finantza-babesa lortzeko, proposatzen dugu jarduketa-ildo hauek indartzea, nahiz eta horietako asko badauden abian dagoeneko:

- a) Inbertsio irmoa sorkuntza-aukerak aztertzeke jardueran, sektoreko beste eragile batzuekin partekatutako plantetan parte hartzera irekitakoa.
- b) Autokontsumoaren bultzada eta sustapena, familia bakarreko egoitzetan zein pisu-blokeetan, soberakinen sorkuntza bultzatzeko.
- c) Babesa eta parte-hartze aktiboa komunitate energetikoen prestakuntzan eta garapenean, kooperatibaren gaitasunekin eta bokazioarekin lerrokatutako rolak bilatuz: ordezkartza, kudeaketa, mantentze-lana eta inbertsioa.
- d) Abian jartzea PParen epe luzerako kontratazioa hirugarrenekin, kooperatibaren ingurumen- eta gizarte-errespetuko parametroen barruan.
- e) Eskaintzea tarifa indexatua erosketaren prezioan kontratatzea.⁴ 2020ko Batzarrak onartu zuen.
- f) Handitzea produktoreen ordezkartza-jarduera merkatu elektrikoan (Som Renovables, S.L.ren jardueran), OMIEen gordailutu beharreko bermeak murrizte aldera.

Jarduketa-ildo hauek abian daude jada; hala ere, uste dugu zehaztu beharko liratekeela definitutako planetan eta urte anitzeko aurrekontu-zuzkiduretan. Beraz, ez lirateke soilik islatu beharko gastu operatiboetan (Opex), baizik eta partzialki ere bai kapital-inbertsio gisa (Capex), baita azterketa- eta prospekzio-faseetan ere.

³ Material eta iturri energetiko ez-berritagarrien inguruan irakur daiteke, adibidez, hemen: *En la espiral de la energía* (Luis González Reyes, 2015) edo Antonio Turiel Martínezen bloga, *The oil crash* [<https://crashoil.blogspot.com/>].

⁴ Egungoa bezalako hegakortasun handiko egoeretan, kooperatiboa behartuta egon da kontratu berriak ez onartzera. Tarifa indexatuak ahalbidetuko luke kontratu berriei aukera hori eskaintzea.

2020ko aurrekontua

Batzarrari aurkezten zaio 2021eko amaieran egindako aurrekontua. Ulertzen dugu orduan eskuragarri zeuden datuekin egin dela, baita zenbatespenik onenarekin ere.

Hurrengo urteetarako, uste dugu interesgarria dela lehenbiziko hiruhilekoko (itxitako gerokoen kontratuak barne) datuekin eta urteko gainerako hiruhilekoetarako zenbatespenarekin aurkezteko aukera aztertzea.

2022rako aurrekontuak % 100etik gorako gehikuntzak dakartza 2021ekoarekin alderatuta, zehazki, diru-sarreraren, gastuen eta komertzializazio-marjinaren aldagairik nabarmenenetan. Horrenbestez, iradokitzen dugu diru-zaintzako premien inguruko aurreikuspenekin aurkeztea.